

## IGNACIO OMAECHEVARRIA MARTITEGUI (1909-1995)

Ez da erraza Aita Inazioren bizitza eta lanak hitz gutxitan sartzea. Ekainaren 4ean (1995), Pentekoste igandez, hain zuzen, hil zen supituki Valladolidko gure komentuan. Esan behar da bere bizi guztian egon zela gaiso edo makal-antzean, baina hala ere beti batetik bestera ibilki, beti neka ezina, idazten, apostolutzen-lanak egiten, etab.

### 1. BIZI-XEHETASUNAK

Gernikan jaioa zen 1909. urtean. Anai-arreba asko izan ziren. Bat izan ezik, Josefina —hau dirudienez, etxearen iraupenerako edo, gelditu zen beste guztiak fraide, apaiz eta monja izan ziren. Baina, entzun dudanez, etxean denek halako begirune berezi batez ikusten zuten gure Inazio.

Mutikotan Arantzazuko kolejoan sartu eta apaiz izateko ikasketak egiten hasi zen nota guztiz bikainak atereaz. Teologi estudioak egiteko, berriz, Alemaniara, Fuldako komentura, bidalia izan zen, baina osasunik ez, eta ikasketa horiek bukatu gabe itzuli zen. 1932. urtean meza berria ematen du. Teologia ikasleei Elizaren Historia esplikatzeko jartzen dute. Baita *Aránzazu* eta *Misiones Franciscanas* aldizkariaren Zuzendari ere.

Euskal Herriaren historiak, euskeraren egituraz, euskal musikaz, Euskal Herriko kanta zaharrez etab. zituen ikuskerak oso kontuan hartzekoak direla uste dugu. Zoritarrez, gauza horietaz adierazten zituen iritziak idatzi gabe joan zaigu. Nik gogoan dut behin Probintzialak fraide gazte bat eskeini ziola sekretario izateko eta berak esaten zituenak jasotzeko. Uda guztian egon zen sekretario hori haren zain, baina bera ez zen agertu ...

Mixioak, eta batez ere behinolako euskaldun mixiolariak ezagutzera ematea izan zen arduraz aztertu zuen esparru bat. Esan behar da bere anaia D. Cruz izan zela Bilboko eliz barrutiko Mixioen arduradun, eta hark argitaratzen zizkioea hortaz idazten zituen liburuak. Hala argitaratu ahal izan zituen *Rex Gentium*, *Eucaristía y Misiones*, *Reina de las Misiones*, *Misioneros seglares*, *Palestina*, *Fue en Nagasaki*, *Heraldos del gran Rey en California*, *Sangre Vizcaína en los Pantanos de la Florida*, etab. Mixioei buruzko kongresuetan ere parte hartu zuen. Euskal mixiolari askoren bizitzak agertu zituen: Berascola, Mugartegui, Martín de Loyola, Martín de Arbide, José Francisco de Ganzabal, Pedro Pérez de Mezquía, Teresalina Zubiri, San Martín de la Ascensión...

Eta beste kezka edo ardura bat, oso bihotzean zeramana, zera izan zen: emakumezko Ordenena; hau da, monjen alde lan egitea, haiei laguntzea etab. Horiei buruz argitaratu zituen liburuak ere ez dira guti: *Las Clarisas a través de los siglos*, *Orígenes*

*de la Concepción de Toledo, Las monjas Concepcionistas, Escritos de Santa Clara*, etc. (1).

Kargu handiak ere izan ditu: hasteko, Alfaroko komentuko Bikario, gero Probintzialaren Idazkari edo Sekretario, gero Definidore Probintziala, Espainiko frantziskotar Probintzi batzuen Bisitaria, etab. Madrilen ere bera izan zen, 1967an, berriz, Definidore Jenerala izendatua izan zen, eta Erroman bizitzera joan behar izan zuen. Han ere emakumezko Ordenen ardura gomendatu zioten eta *Aggiornamento* izeneko boletinaren zuzendari ere izan zen; *Pro Monialibus, Forma Sororum* eta beste zenbait agerkaritan idazten zuen. *Dizionario degli Istituti de Perfezione* delakoan ere lankide izan zen.

Urteak iragan eta, bere osasuna gaizkituz joan zen. Valladoliden ezkondurik bizi den bere iloba bat joan zen Erromara bere automobilean eta ekarri zuen handik osaba Inazio eta Valladolidko gure komentuan utzi zuen. Erromatik itzultze hau 1983. urtean izan zen. Badakit, gainera, iloba horrek noizean behin eramaten zuela osaba automobilean ostera batzuketara.

Zergatik gelditu zen Valladoliden eta ez Euskalerrian? Nik hori ez dakit, eta ez nion sekula galdetu ere, han bizi zen urteetan maiztxo ikusi nuenarren. Pentsatzen dut Euskalerriko egoera hain berezia izanik nahiago zuela pixka bat urruti egon.

1982. urtean Aita Inaziok eta bere arreba Josefinak Arantzazun ospatu zituzten urrezko eztaiak, hark bere erlijio-profesakoa eta honek bere ezkontzarena.

Bai. Fede handiko gizona zen gure Aita Oma.

Eta biografi zati hau bukatzeko, gainera dezagun Aita Oma 1957. urtean euskaltzain urgazle izendatua izan zela (2).

## 2. BIBLIOGRAFI APURRAK

Aita Omaetxebarriaren bibliografia osoa ematea gaurkoz oso zaila da, eta are ezina, esango nuke. Hainbeste aldizkaritan idatzi izan du! Eta nik dakidala, berak ez du idatzitakoan zerrendarik utzi. Gainera, izenordeekin izenpetzen zituen askotan bere lanak, eta horrek ere zailtzen du, neurri batean behintzat, lan hau.

Dena den, euskara eta Euskal Herriakin zer-ikusi duten lanak aipatuko ditut bereziki, eta, segur aski, horiek ere ez denak.

Alemaniatik etorriberrri zenean, eta segur aski hango liturgi mobimenduaren erakarpenez, atera zuen *Euskal meza*, 1936 (Arantzazuko inprimategian).

Eta zenbait urte geroago, *Abestu errosarioa*, 1956.

“El vascuence de Fr. Juan de Zumárraga”, 1948.

---

(1) Erroman zegoenean Vatikanoko hiriak eskatu zion emakumezko klausura-monjen ardura izateko, eta orain, hil denean, entzun dudanez, hainbeste karta azaldu dira mundu guztitik helduak, monjak berari zuzenduak (ez orain helduak, Erroman zegoenean baizik).

(2) Ikus Euskaltzaindiko urgazleen izen-lerrokada, *Euskera*-n (1958), 168-170. orrialdeetan.

“Un claustro gótico en Vizcaya. En el 6.º Centenario de la fundación del convento de Bermeo”, *Boletín de Amigos del País* (1957), 453.

“Nombres propios y apellidos en Oñate”, *BAP* (1957), 114.

“Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos”, *Homenaje a Julio de Urquijo*, tomo 2.º, 153; San Sebastián, 1949.

“San Antón de Uquiola”, *BAP* (1958), 107.

“Nuestra misión de Yenánfú” (China), *Homenaje a la Seráfica Provincia de Cantabria en el 75.º año de su Restauración* (1859-1934); Aránzazu, 1935, pp. 382-461.

Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkarian agertu dituenak honako hauek dira:

“Declinación vasca”, *Euskera* (1962), 29-42.

“Observaciones al proyecto de gramática del euskera literario por la Academia de la Lengua Vasca”, *Euskera* (1963-1964), 135-142.

“Vascuence y romance”, *Euskera* (1986), 177.

Liburu bat osorik ere badu titulu honekin: *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*, editorial Icharopena, Zarauz, 1959. Berak eskaturik, neronek lagundu nion liburu honen argitalpena egiten, probak zuzentzen etab. Bigarren partea, berriz, *Crestomatía* deritzana, neronek egin nuen bere eskariz, baina bigarren parte honen sarrera ere berak egina da; beste guztia, nik (3).

“San Bartolomé de Rocaforte (Navarra) en el camino de Santiago”.

“Rasgos franciscanos en la fisonomía moral de S. Ignacio”.

“Aránzazu. Santuario mariano del siglo XV, lugar de gracia. Ponencia presentada por el autor en el Congreso Mariológico-Mariano de Roma, en el año santo de 1975”, Zamora, 1985 (40 orrialde) (4).

Eta bibliografi kontu hauei amaiera emateko, aipatuko dut nirekin eta Krutwig jaunarekin zer-ikusí duen Omaetxebarria Aitarene beste lan bat. Guk, Kantabriako frantxiskotarrok, badugu aldizkari bat —*Cantabria Franciscana*— gure Probintziko ko-

(3) Liburu honen berria eman zuen Koldo Mitxelenak. Ikus *BAP* (1959), 451-453.

(4) Esan behar da, gainera, musika-gaietan ere oso trebea zela, eta Euskal Herriko kantategitik bide hartuz, elizkizunetan edo erlijio-kutsuko ekitaldietan erabiltzeko, zenbait saio eta kanta moldatu zituela.



Ignacio Omaechevarria eta Luis Villasante (1988-07-31)

mentuetan bakarrik zabaltzen dena. Bertan etxe barruko gaiak azaltzen dira, baina baztutan gaiok bere egitez eta izatez ez dira etxe barrukoak bakarrik izaten. 1951. urtean, bada, errebista horretan agertu nuen nik lan bat “En torno al problema del vascuence” (5). Krutwig jaunaren ezagutza eginberria nuen. Egia esan, hark esaten zituen gauzak niretzat berriak zirena, sekula entzun gabeak, hots, euskerak behar zuela bere burua nazio arteko kultur mundura zabaldu, internazionaliki onarturik dauden kultur hitzak hartu, hitz horiek idazteko grafia erabaki, etab. Hitz batean esateko, Krutwig jaunak nahi zuen nolabait euskera baserri eta etxe-girotik kanpora ere atera, hots, plazara atera, hitz gutxitan esanik.

Eta hurrengo zenbakian, horra non agertzen den, firma gabe, artikulua bat titulu honekin: “¿Esperanto o vascuence?” (6). Aita Omaetxebarriarena da, noski. Eta hurrengo urtean —1952an, alegia— agertzen da ondio nire artikulua koskor bat “Aclaraciones a Esperanto o Vascuence” (7). Bertan esaten diot badirela hemen bi solairu bezala, eta nire ustez bietan behar duela egon euskarak. Nazio arteko kultur hitzak ere behar dituela etxekotu euskarak, neurri batean behintzat. Etxe barruko gaiez eratutako hitzei atea itxi gabe, noski.

(5) Ikus aipatutako aldizkaria, 40-54 orrialdeetan.

(6) Ikus aipatutako aldizkarian, 132-139 orriald.

(7) Aipatutako aldizkarian (1952), 55-66.

Ikusten da Omaetxebarriarentzat euskeraren balio printzipala etxebarruko —nolabait esan— gauzen adierazpide izatean dela. Baina hori ukatu gabe, bestea galerazi behar ote zaio horregatik? (8).

Ez ote du euskarak, beste hizkuntzek bezala, bi solairu horien adierazpide izan behar? —neurri batean behintzat?—.

Nolanahi ere den, gure Aita Omaetxebarria maiteak izan dezala zeruan betiko atsedena.

*Fr. Luis Villasante*

---

(8) Logika honekin munduko hizkuntzarik handi eta zabalduenak esperanto batzuk besterik ez lirake izango ...